

XII. KONGRESUA – BATZORDE ERAGILEAREN KUDEAKETA TXOSTENA AFILIAZIO, EKONOMI ETA FINANTZ ERANSKINA (2008/11/26)

Egunon guztioi, batzarkide eta gonbidatuak.

Batzorde eragilearen kudeaketa txostena aurkeztu du idazkari nagusiak, eta nik eranskinaren aurkezpena egingo det: Pasa diren 4 urtetan izan degun bilakaera afiliazioan; ordezkapenean; datu ekonomikoetan; zerbitzu juridikotan eta sindikatuko egoitzetan.

1. Afiliazioa

Afiliazioari buruz esan beharreko lehenengo gauza: gure afiliatu kopurua haunditzen jarraitzen degula. Hala da datu orokorra, eta jeisten bagera arlo desberdinetara, hala da baita ere ia kasu guztietan. Hori da guretzat garrantzitsuena, hazten jarraitzea.

ZERTARAKO?

Ba ez datu positiboak emateko besterik gabe, jakina. Ezta kontuak koadratzeko. ELAko eredu sindikalak afiliazioa du oinarritzat. ELAko kontrabotere eredu sindikalak afiliazioa behar du bere proiektua aurrera eraman ahal izateko.

Ditugun erronketetarako gure 3 ardatz estrategikoetan, -negozazio kolektiboa, gizarte eredia eta prozesu nazionala-, afiliazioaren beharra degu; afiliazioak ematen digun militantzia, indarra, independentzia eta zilegitasuna.

1. Guztira

Orain dela 4 urte, XI. Kongresuan, 104.695 afiliatu ginen. Gaur, 109.318. Beraz, 4.623 afiliatu gehiago. Horrek %4,42ko hazkundera suposatzen du.

2. Kuotaren arabera

NOLA DAUDE BANATUTA 109.318 AFILIATUAK?

97.760 B kuotan. Afiliazioaren %89,43
3.743 M kuotan, %3,42
7.815 P kuotan, %7,15a

Orain dela 4 urtekin aldenduz, esan degu guztira 4.623 afiliatu gehiago daudela. Hazkundera eman den moduan, B kuotak irabazi du pisua, besteak baino gehiago hazi delako:

5.444 afiliatu gehiago daude B kuotan.
M kuota ia kopuru berdina du, 85 pertsona gehiago eta beraz galtzen du pisua banaketan.

Eta P kuotan 906 pertsona gutxiago daude, beraz galtzen du pisua baita ere.

3. Eskualdeka

Gure 12 eskualdeei erreparatzen badiegu, 2 aipamen egin behar ditugu: 4.623 afiliatu gehiago gerala esan degu.

Ba esan behar da Nafarroa eskualdeak orain dela 4 urte baino 1.220 afiliatu gehiago dituela, %14,56ko hazkundera izan du eskualde honek.

Eta Gasteiz eskualdeak 1.192 afiliatu gehiago ditu, kasu honetan %10,26ko hazkundera.

Benetan aipatzeko lana, edo hobe esanda emaitza, zeren lana, ondo dakigu nola egiten degun gainontzekoan.

Gainontzekoan, konfederazio mailan izan degun %4,42ko hazkundera, era desberdinean banatzen da: aipatutako 2 eskualdekin, 5 eskualde dira batzbestearen gainetik daudenak (%4,42 gainetik), 3 azpitik eta 4 hazkunde negatiboan. Kasu hauetan, %1,5 negoziatzea gailentzen duen eskualde bakarra Bilbo da eta esan behar da 4 urte hauetan izan den enpresa mugimendu haundiak eskualde honetan izan duela eraginik haundiena. Afiliazioa beraz mugitu da besterik gabe beste 2 eskualdetara nagusiki, Eskualdea eta Ezkerraldea-Kadaguara.

4. Federazioka

Federazioetara bagoaz, 4.623 afiliatu gehiagoetatik, 3.104 Zerbitzuak federazioan daude. Federazio honetan 21.805 afiliatutik, 24.909era pasa gera; 3.104 gehiago: %14,23 hazi da federazioa.

Badakigu zer sektoretaz ari geran: sektore prekarizatueta, emakume sektoretaz ari gera. Sektore hauek antolatzen ari dira lan baldintza duinak lortzeko, eta ELAn ari dira antolatzen.

Ezaugarri hauek ez dira federazio hontako sektoreetakoak bakarrik. Gizalaneko beste batzuetan berberak aurkitzen ditugu, prekaritatea eta emakumeak: 3. adineko erresidentziak, etxeko laguntza, haurtzaindegia... Eta sektore hauetan, gatazkak eta ekintza sindikal asko baita ere.

Federazio honetan, 28.905 afiliatutik, 29.901era pasa gera: 996 gehiago (%3,44).

Beste bi federazioetan, gora egin degu baita: Metalean 368 afiliatu gehiago ditugu, (%1,18). Hainbaten, 155 gehiago (%0,7).

5. Batezbesteko adina

Adinari buruz hitz egin behar degu baita.

Hazkunde soilataz aparte, 4.623 afiliatu gehiago gernalaz aparte, zera ikusten degu:

Berrikuntza ematen dela afiliazioan. Adina ikusita eta gizonezko-emakumezko egitura ikusita 4 urten buruan berrikuntza handia antzematen da.

Gure afiliazioaren batezbesteko adina orain dela 4 urte 43,67 zen; hori zen gure adina. 4 urte pasa dira, baina urte bete igo da bakarrik. Orain 44,60 urte ditugu.

Adinaren arabera afiliazio portzentajeak mugitu dira beraz, eta ikusten dezutenez, pisua galdu dute 30 urte beherakoek, eta irabazi 40tik 60 urtetarakoek.

7. Sexuaren arabera afiliazioa

Gizon-emakumezko egiturari dagokionez, 2004. urtean 69.100 gizonezko eta 35.600 emakumezko ginen.

4.623 gehiago gerala esan degu,

eta emakumeak, 4.850 gehiago; %14a hazi da kopurua.

Honen ondorioz, afiliazio osoaren banaketan, % 63 gizonezkoak eta %37a emakumezkoak gera.

Nahiko argi gelditzen ari da NON edo NONDIK datorren afiliazioaren hazkundera: sektore feminizatueta, sektore prekarioeta.

Arrazoi desberdinak daude ta lehenengo bezela,

- Sindikalizatu gabeko sektoreak izatea aipatu dezakegu; lan guztia egiteke dagoen sektoreak.

- Baina hori horrela izanda kasu askotan, gure organizazioaren opzioa erakusten du. Zeinen aldeko opzioa egiten degun erakusten du: Beste alde batera EZ begiratzea erabaki degu. Lan baldintzetan diskriminatua dauden langileak ikusten ditugu eta hori aldatzeko lan egiten degu.

Beraz, gaur egun emakumeen pisua afiliazioan, emakumeek lan merkatuan duten pisura gerturatzen ari da eta 4 federazioetara begira,

2 federaziotan, erdia baino nabarmen gehiago emakumeak dira. Beste 2 federaziotan, metalean eta Hainbaten, beraz federazio industrialetan, emakumeen pisua txikia da; %15etik beherakoa. Honen azalpena, sektore hauetan emakumearen presentzia txikia.

8. Sindikazio tasa

Datu garrantzitsua da oso, sindikazio edo ezarpen tasarena. Gertutik jarraitzen degu.

ZER DA?

ELAren afiliazio aktiboa langilegoarekiko. ELAren pisua langilegoan.

Gertutik jarraitu arren, kongresuarterko datuak atera genituenean, gure komentarioa izan zen: eta emakumezkoetan ez degu mantentzen? Izan degun gorakadarekin emakumeen kolektiboan, %14koa ahalegia?

Ba emakumezko afiliazioan izandako bilakaera ez da nahikoa izan orain dela 4 urteko sindikazio tasa mantentzeko.

Gure afiliazioa handitu da, 4623 pertsonatan;

Afiliazio okupatua 5500 pertsonatan

Emakume afiliatuak 4850 gehiago dira,

Baina lau urte hauetan populazio okupatua gure afiliazioa baino gehiago hazi da eta baita emakumezkoen kolektiboari dagokionez ere.

Beraz, 100 soldatadun langiletatik, 9,64 ELAra afiliatuta daude.

Gizonen %11a; emakumeen %8a eta gazteen %5,82a.

Afiliazio atalarekin bukatzeko,

Beraz, %4,42ko hazkunde orokorra izan degu, eta hiru 14ko ditugu:

- Eskualdeei dagokienez, Nafarroa %14 hazi da.
- Federazioei dagokienez, Zerbitzuak %14 hazi da.
- Emakume afiliatua kopurua %14 hazi dira

2. Ordezkaritza

Bigarren atalean, ordezkapena degu.

Hasteko zer azpimarratu nahi degu?

27.494 ordezkari daudela Hego Euskal Herrian. Lau urtero hautatzen direnez, esan nahi du 27.494 ordezkari hautatuak izan direla azken 4 urtetan. 1990 ordezkari gehiago orain dela 4 urte baino, %8a.

Euskal Autonomi Erkidegoan, 1402 gehiago, %7,3.

Nafarroan, 588 gehiago, %9,5 gehiago.

2 errealitate desberdin ditugu:

- EAEn ordezkaritzaren %40,28 daukagu. Bigarren sindikatuak, CCOO, %20a; erdia. LABek %17,18a eta UGTk %13,2a.

- Egiten degun sindikalismoarekin, patronalak –pribatua eta publikoa- 2006ko epe trinkoan pasako zena ikusteko irrikitan zegoen. Gu ere; ziur ginen gure lanari langileek babesa emango ziotela, eta hala izan da.

- Nafarroan 3. sindikatua gera. Instituzioek, patronalak, beste sindikatuak, hirugarrena eta huskeriaren ordezkari moduan irudikatu nahi gaituzte. Hala izatea gustatuko litzaieke, BAINA, %21,46a ordezkatzan degu. Erkidegoan bigarren sindikatuak ordezkatzan duena baino gehiago.

Gainera, pausoka, baina aurrera goaz, eta azpimarratu behar degu %21,46a lurralde osoan zehar daukagun ordezkaritza dela; goi eta beheko Erribera barne, %19,67ko ordezkapen maila degularik.

Federazioen ikuspegitik, lau federazioetan, lehenengo sidikatua gera. Horrek ematen digu ardura maila haundia, batez ere negoziazio kolektiboan, eta baita lan garrantzitsua egiteko aukera ere.

3. Datu ekonomikoak

Hirugarren atala, datu ekonomikoena da. Itxita dauden azken 4 urtetako datuak: 2004, 2005, 2006 eta 2007koak.

ZER IKUSIKO DEGU? IZANDAKO

- Diru sarrerak
- Hauen banaketa
- Kotizazioa
- Grebakutxako ordainsariak

1. Diru sarrerak

Lau urte hauetan izan degun diru sarrera, 75,5 milioi (75.631.847) eurokoa izan da. Aurreko kongresuarteko diru sarrerekin konparatuz, 17,5 miloi gehiago. Hau da, %30 hazi dira diru sarrerak.

Baina guretzat daturik garrantzitsuena eta azalpen honetako azpimarragarriena, KUOTEN bilakaera da: 64,8 milioi (64.831.794) euro kuotarenak dira. Beraz, diru-sarrera guztien %ia 86a, (%85,72) kuotak dira. Inoiz izan degun portzentairik handiena.

Lau urtetan, diru sarreren %ia 82a izatetik, %86ra pasa gera: ia 4 puntu gehiago.

Urtez urte, kuoten bidez jasotzen deguna, eta bere pisua diru sarrerekiko haundituz doa. "Bestelakoak" atala kontuan hartuta – milioi bat-, ia dena sarrera propioak direlako, gure autonomi finantzieroa, %87,16koa da. Guretzat maila honetara iritsi izana lorpen handia da, alde batetik afiliazio gehiago eta bestetik kuota igogeraren bidez lortutakoa; azken finean afiliazio guztiaren esfortzuz egindako proiektu independentea. Datozen urtetarako puntu honetan degu erronka izugarria. %87a handitu nahi degu.

ZERGATIK?

Argi baino argiago daukagulako jorratutako bide sindikalak erabateko autonomia behar duela. Argi baino argiago daukagu, zein ez den izan behar ELAren papera zenbait eremutan, eta honen ondorioz, behar duan autonomi osoa.

Gainontzeko 2 atal daude, dirulaguntza publikoena, dirusarrera guztien %6,58a, eta parte-hartze instituzionaleko atala, %6,26a.

Esandakoaren ildora, atal honetan azpimarratzekoa da Euskal Autonomi Erkidegoan gertatutakoa: Patronala eta Eusko Jaurkitzaren erabakiek orain dela lau urteko argazkia dexente mugitu dute: joko arauak puskatu izanak,

autogobernuaren defentsa ahazteak eta langileontzat garrantzitsuak diren gaiak eztabaidatu nahi ez izanak,

Lan Harremanetarako Kontseilua, Hobetuz eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea (CES delakoa), uztera behartu gaitu, azken urtean.

2. Banaketa

NOLA BANATU DIRA 75,5 MILIOI euroak?

Esan degun bezela, orain dela lau urte baino 17,5 miloi euro gehiago izan dira banatzeko. %30a gehiago.

Greba kutxara egindako ekarpena 11,7 milioikoa izan da.

Eta gainontzeko 64 milioiak, gastu arrunt eta horniduretan banatu dira: 60,5 eta 3,4 milioi.

Kasu honetan, aurreko kongresuarteko epealdiarekin konparatuz, gastu arrunten igoera haundiago izan da, grebakutxako ekarpenak eta hornidurek izan duten igoera baino. Honen ondorioz, hiru atal hauen pisuak aldatu dira, eta banaketan, grebakutxak %15,5 pisatzen du, gastu arruntek %80a, eta hornidurek %4a.

3. Kotizazioa (kuotaren arabera + kobrantzaren portz.)

Kotizazio datuak ditugu hurrengo atalean.

Alde batetik ELAko kuota desberdinek izan duten bilakaera. 2004ko kuotak oinarri bezela hartuta –B, M eta P- eta 2008n ditugun kuotekin alderatzen, zera ikusten degu:

%24,8 igo direla; Kontsumo Prezioen Indizea metatua %14a izan da. Beraz kuotak, KPI metatua gehi %10a igo dira lau urtetan.

Lehen aipatu deten bezela, kuoten igoera honek ekarri du parte batean autonomi finantzieroa haunditzea.

Hala ere gogoratu behar da, greba kutxara egiten degun ekarpena kenduta, gure kuotak beste sindikatuak dituzten kuoten oso antzekoak direla.

Bestalde, kobrantzaren datua daukagu. 2008ko irailaren datua: %98,6. Oso datu altua. Garrantzi handia ematen diogu gai honi, gutxirako balio bait du afiliatiaz eta kuotataz hitzegitea, gero ez badiogu lehentasuna ematen kuotak kobratzeari. Ematen duen kudeaketa lana handia da, eta hurrengo egunerako utzi ezinekoa. Datu altua dela esan det eta hala da, baina arreta eskeini diogun arren 3 hamarrekotan jetsi degu portzentaia XI. Kongresutik hona.

4. Greba Kutxa – Hileko ordainsaria

Laugarren puntua: Greba kutxa.

Greba Kutxa degu gure lan sindikalerako oinarrizko tresna; patronalarekiko gure indar erlazioa sendotzen duen oinarrizko tresna.

Kongresuarteko epealdi honetan, Nazio Kontseiluak onartu ditu urtero ordainsari kopuruak, eta gainera ordainsari berri bat.

Ordurarte, ohizko ordainsaria genuen, eta ezohizkoa, greba estrategikoetan, baldintza batzuk betez gero onartu zitekeena.

Negoiazio Kolektiboa sendotzearen eta horretarako antolamendu dinamika bultzatzearen, greba kutxa ordainsari berri bat onartu da.

Grebak, irabazteko egiten ditugu. Badakigu ez dela beti horrela izaten, lehenengo saioan behintzat, eta elementu askok jokatzen dutela greba batean.

Baina gure ardurak grebak ondo prestatzea da. Eta horretan, bizitako esperientzi onak eta txarrek laguntzen digute. Badakigu zein garrantzia duen greba aurretik egindako antolamendu lana. Batzutan hilabete luzeak edo urteko lana suposatzen du.

Ba horretan sakontzearen, ordainsari berriak, ohizkoa baino %15 gehiago suposatzen du, grebara deituta dagoen langileen %35a afiliatuak izatea eskatzen duelarik.

Bestalde ordainsariek izan duten bilakaera hau da: 2004 kopuruak oinarritzat hartuta, %20aren inguru igo dira kopuruak.

2008ko kopuruak, hilabetearen erreferentziaz, hauek dira:

Ohizkoa, 739 euro; Berria, 849 euro eta ezohizkoa, 1477 eurora iritsi daitekeena.

Lanbidearteko Gutxieneko Soldatarekin aldentzen baditugu kopuru hauek, zera degu: Ohizkoa %5,5 gehiago dela; berria %21 gehiago eta ezohizko maximoa, %111 gehiago.

Esaten degun bezela, greba batean ez da garrantzitsuena, baina greba irabazteko oinarritzko indarra. Bestela galdetu diezaiekegu 2 edo 9 hilabete greban daramatzaten Sabeco eta Ariznabarrako langileei...

4. Zerbitzu juridikoak

ELAk afiliatuei eskeintzen dien zerbitzu juridikoaren garrantzia ez da azaldu beharrik. Guztiok dakigu zein garrantzia duen, bai banakako zerbitzu moduan, eta baita gure ekintza sindakalarako ere. Zentzu honetan, eskualde bakoitzean kubritzen dutena zabala da zalantzarik gabe.

Hemen ditugun datuak lau urtekoak dira; ez dira kongresuartekoak baizik eta azken itxitako lau urtetakoak.

23.855 afiliatu egon dira espedientetan. Gure afiliazio osoaren % 22a baino gehiago. Pentsa ezazue garrantzitsua den ala ez.

Horregatik ari gara esfortzu bat egiten, zerbitzu juridikoan lanean dagoen taldea handitzeko.

2004. urte aurretik haundituz zihoan taldea da eta orain, 50 pertsona daude 12 eskualdetan lanean. Orain dela 4 urte baino bost pertsona gehiago.

Mahai gainean dagoen lana ikusita 5 zenbaki txikitzat jo daiteke; nik portzentaiari erreparatzen diot, eta bere garrantzia duela uste det: %11 pasatxo. Aipatzeko esfortzua, kontuan hartzen badegu lau urte hauetan ia ez degula egiturazko liberatu kopurua handitu.

5. Egoitzak

Gure egoitzak, afiliatuei ematen diegun zerbitzuaren parte garrantzitsua dira.

Urte asko dira egoitza politika definitu genuela: Gure errealitate organizatiboari erantzun behar zion alde batetik, eta bestetik, zerbitzu integrala eta nahikoa eman ahal izateko gure egoitzetan (arreta orokorra liberatuen bidez, zerbitzu juridikoa, baliabide materialak eta informatikoak...) egoitzen kopuruarekiko oreka bat behar genuen.

Pixkanaka burututako erabakia izan da, eta azken urratsa garrantzitsua 2003. urtean onartutako $12 * 4 = 29$, organizazio planak markatu zuen: eskualde bakoitzean, egoitza kopurua eta hauen arreta maila, ditugun Herri Batzetara egokitzea. Bide luze baten azken urratsa.

Aipatutako azken urratsa, pasa diren 4 urtetan egindakoarekin bukatutzat eman dezakegula uste det egoitza soilen bat kenduta. Hemendik aurrera, esan daiteke, mahai gainean izango deguna bestelakoa izango dela: leku beharrarengatik aldaketak, eta, zergatik ez, Herri Batza berriren batengatik egoitza berri bat.

ZEIN DA 4 URTE HAUEN BALANTZEA?

- ELAk egoitzarik ez zuen 2 herritan, orain egoitza badagoela: Agurain eta Oionen.
- Eta, 10 herritan egoitza berria estreinatu degula. Bagenuen arreta egoitza, baina zerbitzu hobea ematearren, edota ondoko herrietan genuen egoitzen arreta biltzeko, aldatu degu egoitza, horrek suposatzen duen esfortzuarekin. Zeren berriak izateaz gain, haundiagoak, egokiagoak eta baliabide gehiagokoak dira.
- Esate baterako, 48 arreta egoitzetatik, gaur egun 36 egoitza sarean daude, 27k zerbitzu juridikoko arreta dute eta, eskualde eta federazioetako idazkarien presentzia bermatzen denetan.

10 esan det. Kronologikoki:

Derio, Oñati, Lizarra, Lasarte, Mutriku, Eibar, Barakaldo, Zalla, Igorre eta Tafalla. Beraz, 10 herri hauetan egoitza berria, beste 5 herritan egoitza izateari utzi diogularik: Biana, Amurrio, Pasaia, Sodupe eta Balmaseda.

- Atal honetan, Ondare Sindikala aipatu behar degu. 1996. urtean Ondare Sindikaleko estatuko Komisionak akordio bat egin zen Nafarroako ondare sinkalaren egoera parte batean orekatzeko. Akordio hori zortzi urtez guztiz

blokeatuta egon ondoren, azken 4 urtetan aurrera eraman da. Akordioak ELAri Iruñan, Lizarran eta Altsasun egoitza zegokiola zion. Iruñan bagenuen, baina zati berri bati egiten zion erreferentzi. Hirurak eraman dira aurrera eta beraz gaur egun Nafarroan Ondare sindikaleko 3 egoitza ditugu: Iruña (parte berria barne), Lizarra eta Altsasua.

Erkidegoan ez da aldaketarik egon; blokeatuta jarraitzen du auziak eta Ondare sindikaleko 3 egoitza ditugu: Gasteiz, Bilbo eta Donostia. Kasu honetan egoitzaren erdia, beste erdia gurea da eta.

Beraz, denera 6 egoitza. Gainontzeko 42etatik, 27 ELArenak dira eta 15en alokairuan gaude.

Ba haxe izan da eranskinaren azalpena. Gure lan sindikalean garrantzia duten elementuak dira.

Langileekin esaten degu.

Langileekin egia izateko, langileek behar duten zerbitzua zaindu behar da.

Langileekin egia izateko, lan baldintzen alde borrokatzeko tresnak garatu behar dira.

Langileekin egia izateko, eredu sindikal jakina egin behar da; autonomia.

Eta langile ekin! Esateko, afiliazioa da gure oinarria.